

ARBELEN MANTENTZE LANETARAKO ARGIBIDEAK

Laneko arriskuen prebentzioa arlo konplexua da; ordenamendu juridikoak botere publikoei esleitzen die laneko segurtasuna eta osasuna zaintzeko ardura, lan-jardueraren ondoriozko arriskuak prebenituz langileen osasuna babesteko politika bat garatuz.

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen du ardura hori, OSALAN hura gautzatzeko tresna delarik. Horren helburua ondorengo da: “Euskal Autonomia Erkidegoaren botete publikoek ezartzen dituzten segurtasun, higiene, ingurumen eta laneko osasunaren nguruko politikak kudeatzeaz, lan-inguruneari datxekzion arriksuak hasiera-hasieratik ezabatzeko edo murrizteko joera dutenak”.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomiaduna da, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailari atxikita dago eta bere egitura eta funtzionamendua, Dekretua 191/2002, uztailaren 30koak arautzen ditu. Honetan onartzen da Osalan- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura araudia eta funtzionamendua.

Bere funtzioen artean daude:

- Enpresa, prebentzioko profesionalei, ordezkariet, langileei eta, oro har, publiko guztiet, aholku ematea.
- Lan-osasunaren inguruko informazio-sistema ezarri eta mantentzea.
- Amiantoaren eraginpean dauden langileen zerrenda sortu eta mantentzea.
- Amiantoaren eraginpean egondako langileen Osasunaren okupazio ondoko Zaintzan Osakidetzarekin batera jardutea.

Gasteizko Udaleko Udal Eraikinetako Mantentze Sailak eta bere prebentzio zerbitzuak jakinarazi ziguten, zenbait ikastetxetako arbel modelo zahar batzuetan amiantoaren osagai bat aurkitu izana. Udalak berak agindutako laborategi analisi baten bitartez informazioa kontrastatu ostean, hezkuntza komunitateari ondorengo informazioa helarazi nahi dizuegu:

“Amianto” edo “asbesto” izenarekin ezagutzen duguna sustantzia mineral natural bat da, zuntz-silikatoa, jatorri mineraleko sustantzia, konposizio kimiko aldakorra duena eta apurtu edota txikitzerakoan, zuntzak askatu ditzakeena; hau ez da gertatzen berezko egoeran egonda manipulatzeko ez bada. Dituen ezaugarri fisikoengatik oso erabilia izan da eraikuntzako materialetan, automobilgintzarakoetan, oihalgintzako materialetan...

Laborategiko analisisien emaitzen arabera arbeletan erabilitako amianto, amianto ez hauskorra da, krisotilo motakoa eta egindako analisisietan jasotako emaitzen arabera, laginek %10-15 amianto zuten.

Krisolitoa, amianto zuria bezala ere ezagutzen dena, aldaera ezagunena da, eta estimazioen arabera, erabilitako amiantoaren %90 baino gehiago aldaera horretakoa da. Fibrozementu forman agertzen denean (zementua eta amiantzo zuntzak nahastuta), material ez-hauskorra bihurtzen da. Hau da, zuntzak matrizeari gogor hertsia dit eta ezin dira zuntzok eskuz zabaltu. Horretarako, erremintak erabili behar dira.

1. Material mota hau izan lezaketen arbelak, seguruenik 1990 urtea baino lehenagoak izango dira, gutxi gorabehera.
2. Arbel hauek normaltasunez erabil daitezke irakaskuntza zereginetan, inolako arriskurik gabe, baldin eta manipulaziorik eta alteraziorik eragiten ez bazaie.

Eta, ondorioz, burutu beharreko ondorengo neurri eta jokaerak ezartzen ditu:

1. Arbel horien manipulazioa dakarren ekintza oro debekatu egingo da (gainazala lixatu nahiz leuntzea, mozketak egitea, daratuluz zulatzea...), amiantoaren zuntzak askatu baititzakete ekintzok, horrek lekuaren arriskuarekin.
2. Material mota hau izan lezaketen arbelen erregistro-inbentarioa egingo da, eta hondatuta edo manipulaturik egongo balira, dauden lekutik beherela baztertu behar dira. Lan hori enpresa espezializatu batek egin behar du, amiantoaren arriskua duten enpresen erregistroan izen emanda dagoen enpresa izan behar da. Zerrenda kontsultatzeko:
http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/6173/es_2282/adjuntos/REGISTRO_AMIANTO_EUSKCAST.pdf
3. Horretaz gain, amianto izan dezaketen arbelak erretiratzeko lanen egutegia egin beharko da.
4. Amianto-zuntza duten arbelak manipulatu dituzten langileak material horren eraginpean egon izana egiaztatzen den kasuetan, beharrezko izapideak burutuko dira langile horiei Lan egin Ondoko Zaintza bermatzeko, amiantoaren eraginpean egon diren langileen zerrendan izena emanaz (PIVISTEA, Amiantoaren eraginpean egondako langileentzako Osasunaren Zaintzaren programa integrala)
5. Informazioa eta zalantzak bideratzeko OSALANek ondorengo helbide elektronikoak jartzen ditu zuen eskura, lurradeko bana:

Araba: osalantgara@euskadi.eus

Bizkaia: osalantgbiz@euskadi.eus

Gipuzkoa: osalantggip@euskadi.eus